

ERRUKIZKO AITA

Doinua: "Triste bizi naiz eta"

1

Bihotz haundiko Aita
ta errukiorra,
guk hau ez sinistea
bai dala gogorra.
Zelan izan leiteke
hain itsu ta gorra?
Hau da inoiz ordaindu
ezin dogun zorra.

2

Jesus eta lapurra
biak kurutzean,
- Jesus, nitaz gomuta
zeruan sartzean".
- Gaur han izango zara
Neurekin batean",
Aitatxo han daukagu
geure zain atean"

3

Zeuk bialdu zenduan
Semea mundura,
errukitsu zarala
erakutsi gura.
"Izan errukiorrak
Aita dan modura",
danok salbatzea da
Aitaren ardura.

4

Aita, hori bihotza
samur ta leiala
errukizko itsaso
sakon ta zabala!
Egizu hau benetan
sinistu daidala,
eskerrik asko, Aita,
bai ona zarala!

A. Martzel